

Joxin Etxezarretaren hitzak (2009-03-23)

Dena huen berri guretzat

Etorri gaituk, Iñaki, gu ere Deustuko Unibertsitatetik aio esatera, gure artean eman hituen 12 urte haietan piztutako adiskidetasunak bultzatuta.

Urte onak izan genizkian Euskal Irakaslegoan, euskalduntze-alfabetatzearen oinarri sendoak eraikitzen ibili hintzenean. Irakasle berri, zuzendari berri, ezkon berri, guraso berri, dena huen berri guretzat.

Gure geletatik ere zenbat alfabetatu eta zenbat euskaldun berri. Langintza horretan ondo asko erakutsi higun zer zen zorrotasuna, zer zehaztasuna euskara, hizkuntzak edo hizkerak, didaktika eta ebaluazioa, eta abar tarteko zirela.

Orain dela hamar egun ere lezio berbera eman hidan, honetaz eta hartaz ari ginela: "Gure mediku honek ere hasieran " como van esas ventosidades" esaten zidaan, eta orain " te has tirado algun ..." Badakik, Joxin, beharraren araberako hizkera".

Baina, zorrotasuna eta zehaztasunaz gain, hizkuntzarekin jolas egiten ere erakutsi higun. Orduko afarietan bertsoak osatu nahi hartan, hi beti gailen. Han ere bertso onenak heurreak. Barre ederrak egin genizkian.

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien fakultatean ere erein huen hazia, euskaraz ematen hasi hintzen ikasgaiarekin. Hain zuzen ere, "Nortasunaren oinarri biologikoak" eta gu bulegoan eztabaidatzeko prest, zer dugu berezko eta zer dugu ikasia.

Gero, zalaparta handirik gabe, Deustu utzi eta bide berrietara jo bahuen ere, beti izan haugu gertu, EGA dela edo beste edozer dela. Hire lehen hitzak beti zer berri? Eta hau? eta hura? zer moduz dabilta?

Eta hara, azken hilabeteotan, berriz, hitaz galdezka denak.

Oraingoan ere, isil-isilik alde egin diguk eta orain arte bezala, ez haugu ahaztuko, gertu izango haugu.

Agurrarekin batera, elkar besarkatzera ere etorri gara. Isabel, Xabier, Jone, Itziar, hartu gure besarkada eta animua. Badakizue Deustukook non gauden, nahi edo behar duzuenarako.